

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2731

AGINDUA, 2022ko ekainaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzen deialdia egiten baita Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzat.

Merkatuen eta ekoizpenen globalizazioaren egungo egoera eta horren ondoriozko lehia handia direla eta, estrategia berriak behar dira euskal enpresa-ehuna lehiatzeko posizio batean jartzeko.

Egoera horretan, Lanbide Heziketa funtsezko aliatua da lanbide-profilak garatzeko eta, horrela, bermatzeko estrategia berri horien diseinuak eta garapenak eta balio berezi baten sorrerak ahalbidera diezaiela gure enpresei etorkizun jasangarri bat eta, ondorioz, pertsonen enplegarritasuna nabarmen handitzeko bidean aurrera egitea.

Halaber, laugarren industria-iraultza mundua eraldatzen ari da, eta horren lekuko gara: gizartearen kontzeptua aldatzen ari da, beste industria-eredu baterako bidean gaude, hein handi batean, teknologia, konektagarritasuna eta digitalizazioa oinarri dituena, eta horrek berekin ekarri du beste estrategia batzuk behar izatea produkzio-prozesuetan. Testuinguru horretan, eta Euskadin ekonomiaren oinarria produkzioa dela jakinik, bereziki garrantzitsua da produkzio-prozesu tradizionalak aldatzea eragingo duten teknologiak eta materiala sartzeara.

Sektore produktiboak aldaketa sakonak eskatzen ari dira lanbide-heziketan, eta hauek dira egoera horren arrazoiak: gertatzen hasiak diren gizarte-aldaketak, kalitatezko enplegua eskuratzeko aukera, lan-merkatuaren berregituraketa, berrikuntza teknologikoen aurrerabidea, produkzio-prozesuen automatizazio-maila gero eta handiagoa, antolatze eta kudeatzeko modu berriak, beste lanbide-eremu batzuen sorrera, eta tekniken nahiz ekipamenduen eraldaketa bizkorra.

Gaur egun, hainbat berrikuntza, hala nola adimen artifiziala, droneak, 3D inprimagailuak, gauzen Interneta, errealtate birtuala eta sare digitalak, ondasun eta zerbitzuak trukatzeko ohiko arauak aldarazten ari diren fenomenoetako batzuk dira, eta horiek guztiak heldu beharreko erronka dira enpresa-sektorearentzat nahiz pertsonen prestakuntzan. Horren guztiaren ondorioz, Euskadiko lanbide-heziketak ezinbestez egin behar ditu behar beste eraldaketa, 4.0 gizarte baten benetako premietara egokituko den lanbide-heziketa sustatzeko eta garatzeko.

2018ko uztailaren 5ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legea argitaratu zen eta, haren bidez, berrikuntza gisa, LHko eredu konbinatu bat sartzen da Lanbide Heziketan. Eredu horrek Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztutako lanbide-heziketa integratua hartzen du barnean, baina baita berrikuntza aplikatuko ikaskuntzak eta ekintzailtza aktiboa ere.

Halaber, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuan Espezializatutako Ikastetxeen Euskal Sarea sortu eta arautzen du, euskal produkzio-sareari jarri zaizkion erronkei erantzuna emateko. Horrek guztiak, batetik, prestakuntza aurreratu bat hartzen du barnean, LH ikasten duten pertsonen kualifikazio eta espezializazioak altuak izan daitezen; eta, horrekin batera, berrikuntza aplikatu bat, teknologiaren arloan, enpresa txiki eta ertainei produktua, produkzio-prozesua eta zerbitzua hobetzen laguntzea lehenetsita, eta, metodologiaren arloan, ikasteko era aldatuta eta zeharkako kompetentziak hobetuta.

Gainera, Gobernu Kontseiluak Lanbide Heziketako V. Euskal Plana onartu zuen, 2019ko otsailaren 12an. Plan horrek giza garapen jasangarria du helburutzat, eta, xede hori erdiesteko, gizakien talentua sustatzen du, zenbait gaitasun eta kualifikazio txertatuz, ekoizpen-ingurune berri batetik datozen erronkei aurre egiteko.

Lanbide Heziketako V. Euskal Plan horretan bederatzi eremu estrategiko definitu ziren, eta eremu horietako bakoitzak epe ertainean lortu behar diren helburu espezifikoak eta helburu horiek lortzeko garatu beharreko jarduketa-ildoak zehaztu zituen. Eremu estrategiko horietako batzuk hauek dira: berrikuntza teknologikoa eta sistema adimendunak; biozientziak eta garapen jasangarria; eta Lanbide Heziketako ikastetxeak, erakunde adimendunak lortzeko asmoa. Eremu horietako bakoitzak helburu jakin batzuk ditu, eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeetan 4.0 inguruneen eremuko teknologiak inplementatzera bideratutako jarduketa-ildoan inguruko helburu hauek zehazten dituzte:

a) 4.0 industria-inguruneetan ikertzea eta berritzea, lortutako ezagutza Euskadiko LHren balio-katera transferitzeko.

b) Errendimendu handiko 4.0 Lanbide Heziketako ikastetxeak garatzea.

c) Lanbide Heziketara aplikatutako berrikuntza eta ikerketa zientifikoa garatzea nekazaritzako elikadura jasangarrian, natura-ingurunean eta itsas ingurunean, etxegintza adimendunean eta eraikuntza jasangarrian, eta osasunean eta biozientzietan.

d) Lanbide Heziketako ikastetxeen erakunde berria. Erakunde adimendunak lortzeko asmoa.

Beraz, hortxe dauzkagu erronkak, eta, horretarako, beharrezkoa da Lanbide Heziketako ikastetxeen parte-hartze aktiboa proiektuak diseinatzeko eta garatzeko, benetan posible izan dadin gero eta ingurune espezializatuago eta konplexuagoetan ikaskuntza-metodo berritzaileak ezartzea, eta, horrela, ikasleek eskuratutako ezagutzak errazago eta benetan transferi daitezzen, eta, azken finean, enpresen espezializazio-maila handitu eta, ondorioz, abantaila lehia-abantaila jasangarria lor dezaten.

Teknologia horiek aldaketa disruptiboak sortzen ari dira produkzio-ereduan, bai eta produktuetan eta zerbitzuetan beretan ere, eta, hala, industria berri bat sortzen ari da, digitala eta konektatua. Gauzak horrela, gaur egun ditugun erronkei behar bezala heltzeko ezinbestekoa da etengabe egokitzea lanbide-heziketako euskal sistema, 4.0 industria-inguruneetan ikertzea, errendimendu handiko 4.0 Lanbide Heziketako ikastetxeak garatzea, Lanbide Heziketara aplikatutako berrikuntza eta ikerketa zientifikoa egitea, ikastetxeak erakunde adimendunen eredurantz eraldatzea, ziurtatzeko haiek guztiek antolaketa-dinamika ireki eta konektatu batean parte hartzen dutela, etengabeko autohazkundera lortze aldera.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2022. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren baitakoa da, zeina Hezkuntzako sailburuaren 2022ko otsailaren 4ko aginduaren bidez onartu baitzen.

Ondorioz, eta bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan xedatutakoarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan dirulaguntzen araubidea arautzekoa), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da makineria edo ekipamendua erostetik edo errentan hartzetik eta makineria edo ekipamendu hori instalatzetik eratorritako gastuak finantzatzera bideratutako dirulaguntzak emateko prozeduraren deialdia egitea, bi jarduketa-eremuren arabera:

- 1. eremua: Aurrez aurreko modalitate osoko Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzat, heziketa-zikloak emateko beharrezko makineria edo ekipamendua eguneratzeko, II. kapituluan adierazitakoaren arabera.

- 2. eremua: Aurrez aurreko modalitate osoko Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatu integratuentzat, 4.0 ingurunearen erronkei erantzungo dieten eta lanbide-heziketaren eraldaketa digitalaren eta jasangarritasunaren planak ezarriko dituzten proiektuei heltzeko, III. kapituluan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira jarduketa-eremu bakoitzean agindu honen II. kapituluko 18. artikuluan eta III. kapituluko 25. artikuluan ezarritakoak.

3. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Agindu honetan bideratutako dirulaguntzen zenbateko osoa bi milioi berrehun eta hamazazpi mila laurehun eta laurogeita zazpi eurokoa da (2.217.487).

2.– Zenbateko osoa honela banatuko da deialdi hau osatzen duten bi jarduketa-eremuen artean:

- 1.000.000 euro agindu honetako 1. artikuluan definitutako 1. eremuan sartzen diren makineriaren edo ekipamenduen erosketa edo errentamendu-kuotak finantzatzeko. Eremu honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko, proportzionalki banatuko da goian adierazitako zenbatekoa, eta banaketa hori egiteko, horretarako beren-beregi ezarritako irizpideak beteko dira.

- 1.217.487 euro agindu honetako 1. artikuluan definitutako 2. eremuan sartzen diren makineriaren edo ekipamenduen erosketa edo errentamendu-kuotak finantzatzeko. Eremu honetarako aurreikusitako dirulaguntzak emateko, lehia bidezko konkurrentzia-prozedura erabiliko da.

3.– Eremu bakoitzari esleitutako diru kopuru guztia agortzen ez bada, sobera dagoen zenbatekoa beste jarduketa-eremuari esleitutako kopuruari gehituko zaio, baldin eta hasiera batean esleitutako diru kopurua ez bada nahikoa izan baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, zentzu horretan balorazio-batzordeak emango duen proposamenaren arabera.

4. artikulua.– Parte hartzeko betekizun orokorrak.

Agindu honek jarduketa-eremu bakoitzerako ezarritako bestelako eskakizun espezifikoak ezertan galarazi gabe, agindu honen bitartez deitzen diren dirulaguntzak eskuratzeko, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte, ezinbestean, interesdunek:

a) Dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen lege-debekurik ez izatea, sexuatik diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barnean direla, 1/2022 Legearen arabera –1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa–.

b) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Betekizun biek iraun behar dute emandako dirulaguntzak likidatu arte; beraz, egiaztatu egingo da bete egiten direla bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.

c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoera batean ere ez egotea.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek prozedura honetako izapide guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko baliabide elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egingo dituzte.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak –Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren bidez aldatua– eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak, zeinaren bidez onartu baitzen Platea E-Administrazio Plataforma Teknologikoa.

3.– Eskabideak bide elektronikoz nola izapidetu, erantsi beharreko dokumentazio-ereduak eta deialdi honi lotutako gainerako izapideak honako helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0098611>

4.– Eskabidearen osteko izapideak, justifikazioa barne, honako helbide honetako Nire karpeta atalaren bidez egin beharko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Halaber, izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea.

1.– Eskabideak (I. eranskina), baldintza guztiak behar bezala beteta, modu elektronikoa aurkeztu behar dituzte, agindu honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hilabeteko epearen barruan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ezingo da makina edo ekipamendu berbera erosteko edo errentan hartzeko finantzaketa eskatu bi jarduketaren eremuan.

2.– Eskabideekin (I. eranskina) batera, artikuluko honen 7. apartatuan adierazten den dokumentazioaz gain, agindu honen II. kapituluko 20. artikuluan eta III. kapituluko 26. artikuluan jarduketan-eremu bakoitzerako eskatzen den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da.

3.– Eskatzailearen batek inbertsioa amaitu badu eskabidea aurkezten duen egunerako, inbertsio hori egin izanaren eta egindako benetako gastuaren egiaztagiriak aurkeztu ahal izango ditu.

4.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuz, eskabidean erantzukizunpeko adierazpena jasoko dute, honako betebeharrak eta eskakizun hauek egiaztatzeko:

a) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatu zaizkien eta, hala badagokio, haietatik jaso diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea, eta adieraztea, baiezkota izanez gero, laguntza eman duen erakundearen izena eta zenbatekoa.

b) Administrazio- edo zigor-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez dagoela, ezta sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuren baten eraginpean ere.

c) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako debekuetako batean ere.

e) Egiazkoak izatea eskabideko datuak eta emandako dokumentazioa, eta betetzea indarreko araudian dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak.

6.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteak baimena emango du Lanbide Heziketako Sailburuordetza zuzenean egiazta dezan dirulaguntzen eskatzaileek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, hala-korik egiten baldin badu, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzen duten administrazio-agiriak aurkeztu beharko ditu.

7.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga berreskuratzeari buruzko informaziorako, dirulaguntzen eskatzaileak zerga-administrazio eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Ziurtagiri horretan, ekonomia-jardueren gaineko zergan (EJZ) alta emanda dagoen jarduera guztiak jasoko dira. Hala badagokio, eskuragarri dagoen azken ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitortpen-likidazioaren 390 ereduaren kopia ere aurkeztu beharko du, bai eta aipatutako 390 ereduaren aurkezpenaren eta egiten dituen EJZ jardueren azalpen-memoria labur bat ere.

7. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskabidea oso-osorik betetzen ez bada, edo eskabidearekin batera behar den dokumentazioa aurkezten ez bada, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun naturaleko epean akatsa zuzentzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, esango zaio aurrekoa egin ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.

8. artikulua.– Prozeduraren instrukzioa.

1.– Plangintza eta Antolaketako zuzendariak izango du emate-prozedura instruitzeko eskumena.

2.– Balorazio-batzorde bakar bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu, ebaluatu eta hautatzeko; kide anitzeko organo gisa jardungo du, eta hauek izango dira kideak:

a) Batzordeburua: Nicolás Sagarzazu Alzua, Plangintza eta Antolaketako zuzendaria, edo haren ordezkoa.

b) Bokalak:

Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

Beatriz Aranaga Elorriaga, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkoa.

Maite Lizartza Urrestarazu, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkoa.

Mikel Imaz Gorrotxategi, Arabako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkoa.

Pablo Gaztelumendi Martínez, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkoa; idazkari-lanetan arituko da, hitzarekin baina botorik gabe.

3.– Balorazio-batzordeak, aurkeztutako eskabideak ebaluatutakoan, behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori agindu honen 5. artikuluan ezarritako baliabide elektronikoez jakinaraziko zaie onuradunei, eta 10 egun naturaleko epea emango zaie, halaber, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako alegazioak aurkez ditzaten. Hamar egun naturaleko epea igarotzen bada jakinarazpenaren edukira sartu gabe, jakinarazpena baztertutzat joko da, eta, prozedurari jarraikiz, izapidea gauzaturtat joko da, salbu eta, ofizios edo hartzaileak eskatuta, horra sartzea teknikoki edo materialki ezinezkoa dela egiaztatzen bada.

4.– Aurkeztutako alegazioak aztertuta, balorazio-batzordeak prozeduraren ebazpen-proposamena egingo du, dirulaguntza ematea proposatutako eskatzaileen zerrenda adierazita, baita zenbatekoa ere, eta horretarako jarraitutako ebaluazioa eta balorazio-irizpideak zehaztuko ditu proposamen horrek. Plangintza eta Antolaketako zuzendariak, organo instrukzio-egile gisa, Lanbide Heziketako sailburuordeari bidaliko dio proposamen hori, ondoren ebazpena eman dezan.

5.– Ebazpenerako behin-behineko eta behin betiko proposamenek ez dute eskubiderik sortzen onuradun gisa proposatutako pertsonen alde, harik eta emateko ebazpena jakinarazten zaien arte.

9. artikulua.– Dirulaguntza emateko prozedura aaitzea, jakinaraztea eta publikotasun-prozedurak.

1.– 1. eremuan, eskakizunak betetzen dituzten eskabide guztiei emango zaizkie dirulaguntzak, II. kapituluko 22. artikuluan xedatutako banaketa-irizpideen arabera.

2.– 2. eremuan, lehia bidezko konkurrentzia-prozedura erabiliko da betekizunak betetzen dituzten eskaeren artean dirulaguntzak banatzeko. Dirulaguntzak kreditua agortu arte emango dira, puntuazio handiena lortu dutenetatik hasita, III. kapituluko 28. artikuluan xedatutako irizpideen arabera eta 27.3 artikuluan finkatutako mugak kontuan hartuta.

3.– Lanbide Heziketako sailburuordeak egingo du deialdiaren ebazpena, balorazio-batzordearen proposamena jaso eta gero. Ebazpen horrek bi eremuak bereiziko ditu, emandako dirulaguntzak zehaztuko ditu, eta dirulaguntzak ukatzeko arrazoiak adieraziko ditu. Lehenengoan kasuan, adierazi behar dira onuradunaren izena edo izen soziala, zer ikastetxe den, zenbateko puntuazioa lortu duen, eta zenbateko dirulaguntza eman zaion. Ukatutako eskabideei dagokienez, eskatzaileen izena edo izen soziala eta laguntza zergatik ukatu den adieraziko du ebazpenak.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei; dena den, haren ezagutza orokorra bermatzearen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, hauek adierazita: onuradunen zerrenda, zer ikastetxe den, zenbateko puntuazioa lortu duen, eta zenbateko dirulaguntza eman zaion.

5.– Prozedura ebazteko eta ebazpena pertsona interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da, deialdiaren agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutako ondoreetarako.

6.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen emakida eta, hala badagokio, ordainketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitzeko baldintzapean geratuko da.

7.– Artikulu honen 3. apartatuan aipatzen den ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke horren kontra Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

10. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Justifikazio-agiriak aurkezteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitarteko elektronikoak erabili beharko dira, honako helbide honetako Nire karpeta atalaren bitartez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Jarduketa-eremu bakoitzeko gastuak justifikatzeko, agindu honen II. kapituluko 23. artikuluan eta III. kapituluko 29. artikuluan beren-beregi adierazitako eranskinak aurkeztu beharko dituzte onuradunek.

Eranskin horiekin batera, gastuak justifikatzeko egiaztagiri hauek ere aurkeztuko dira:

- Makineria edo ekipamendua erosiz gero, fakturen benetako kopia eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

- Errentamendua bada, finantza-errentamenduaren gastuen hileko kuotaren justifikazioa, errentamendu-kontratuaren benetako kopiaren eta ordainagirien bidez.

3.– Baldin eta jarduketa-eremu batean diruz lagundu daitekeen makineriari edo ekipamenduari eragiten dion faktura edo errentamendu-kontratu batek barne hartzen badu, aldi berean, beste jarduketa-eremuan diruz lagundu daitekeen beste makineria edo ekipamendu bat, egiaztagiri berbera aurkeztu ahal izango da gastu biak justifikatzeko. Dena den, justifikazio bakoitzean adierazi beharko da dokumentu horren zein zati proportzional dagokion eremu bakoitzari.

4.– Onuradunek jatorrizko justifikazio-agiri guztiak izan behar dituzte zaintzapean eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura, hark eskatzen baditu ere.

5.– Agiri horiek aurkezteko azken eguna 2022ko abenduaren 30a izango da.

11. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Dirulaguntzak ordainketa bakar batean ordainduko dira, behar bezala justifikatu ostean.

2.– Ordainketa hori egin ahal izateko, organo kudeatzaileak egiaztatu beharko du onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.5 artikuluan adierazitako betekizun guztiak betetzen dituela. Era berean, ordainketak egiteko baldintza izan daiteke deialdian edo laguntza emateko ebazpean eskatzen den dokumentazioa aurkeztea.

12 artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuak nahiko arrazoi izango dira dirulaguntzak ezeztatze eta berandutze-interesekin batera itzularazteko, dirulaguntza ordaintzen denetik itzularaztea egokia dela erabaki arteko interesak, hain zuzen ere. Horretarako, egoki ikusten dituen egiaztapenak egiteko eskumena izango du Hezkuntza Sailak.

2.– Era berean, erosketa, errentamendu-kuotak eta eskatutako kopuruen ordainketa ez justifikatzeak dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

3.– Dirulaguntza itzultzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura beteko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da, eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira. Hori gorabehera, bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratu ahal izango dira. Aipatutako kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

Horretarako, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak likidazio-ebazpena emango du eta, han, eman diren dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

13. artikulua.– Ebazpena aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta beste erakunde publiko edo pribaturen batetik bestelako dirulaguntzak ere lortzen badira, eta, horren ondorioz, ezarritako mugak gainditzen badira, emate-ebazpena ere aldatu ahal izango da hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe.

14. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan jarduketa-eremu bakoitzarentzat aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, behar den gehieneko mugaraino.

2.– Edonola ere, deialdi honetan jarduketa-eremu bakoitzerako aurreikusitako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak deialdi honetako jarduketa-eremu-eremuetarako makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko emandako dirulaguntzekin,

izan dirulaguntza izendunak, dirulaguntza zuzenak edo dirulaguntza-aginduetan ezarritakoari jarraikiz emandako bestelako edozein laguntza.

15. artikulua.– Inbertsioa egiteko baldintzak eta onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradunek, inbertsioa egiteko, baldintza eta betebeharrak hartu beharko dituzte kontuan:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Horretarako, dirulaguntza eman zaiela jakinarazi eta hamabost egun naturaleko epean onuradunek berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Dirulaguntzako ekipamenduak dirulaguntzaren xede zehatz horretarako izango dira, eta bi urte baino gutxiago ezin izan daitekeen denboraldi baterako, ekipamendua erosi edo errenta-kontratua egiten den egunetik aurrera.

3.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari justifikatzea deialdian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela.

4.– Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, baita elektroniakoak ere, baldin eta egiaztatuta eta kontrolatu ahal badira.

5.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diete, beren jardunean ari direla, deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

6.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

7.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

8.– Lanbide Heziketako Sailburuordetzari erraztu behar diote diruz lagundutako ekipamenduen kontrola, jarraipena eta ebaluazioa.

9.– Jasotako dirulaguntzen berri emateko neurriak hartzea. Neurri horiek betetzeko erabiltzen diren euskarrietan –informatikoetan zein bestelakoetan– adierazpen hau sartuko da: <Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak 2022ko deialdian finantzatutako makineria edo ekipamendua>.

Dirulaguntzaren bidez ekipamenduaren zati bat bakarrik finantzatu bada, hau adieraziko da: <Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak 2022ko deialdian kofinantzatutako makineria edo ekipamendua>.

10.– Hemen xedatutako betebeharrak guztiak betetzea: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikulua.

16. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Lanbide Heziketarekin lotutako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza.

Xedea: Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei dirulaguntzak ematea makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: Onuradunek eskubidea dute datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezeztzeko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea duzu gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/047400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

II. KAPITULUA

1. EREMUAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK: DIRULAGUNTZAK MAKINERIA EDO EKIPAMENDUA EROSTeko EDO ERRENTAN HARTZEKO, HEZIKETA-ZIKLOAK EMATEKO BEHARREZKO MAKINERIA EDO EKIPAMENDUA EGUNERATZEKO

17. artikulua.– Onuradunak.

Kapitulu honetako dirulaguntzen onuradun izan daitezke 2021-2022 ikasturtean aurrez aurreko modalitate osoan Lanbide Heziketako zikloren bat ematen duten eta 4. artikuluan adierazitako betekizunak betetzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuen titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak.

18. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira heziketa-ziklo bakoitzerako ezarritako makineria edo ekipamendu espezifikoa erosteko edo errentan hartzeko egindakoak, baita makineria edo ekipamendu hori instalatzeetik eratorritako gastuak ere. Edozein heziketa-ziklok partekatzen dituen eta erabilera orokorra duten ekipamenduek dirulaguntza jaso ahal izango dute, baldin eta ikaskuntza-metodologia eta -tresna berritzaileak ezartzeko espazioak egokitzeko aukera ematen badute.

2.– Artikulu honen aurreko apartatuak aipatzen duen espazio-egokitzapenak ikaskuntza-metodologia berrietan sustatzen den lankidetzak aktiboa errazteko gune moldakor, ireki eta elkarlotuak lortzera egon behar dira bideratuta.

3.– Makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko.

4.– Makineria edo ekipamendua erosteak edo errentan hartzeak duen jasandako balio erantsiaren gaineko zerga diruz lagungarritzat joko da baldin eta indarreko zerga-araubidearen arabera berreskurazina bada.

5.– Makineriaren edo ekipamenduaren erosketak eta ordainketak, bai eta kapitulu honetan xedatutako dirulaguntzen xede diren errentamendu-kuoten ordainketak ere, 2022ko urtarrilaren 1aren eta 2022ko abenduaren 30aren artean egin behar dira. Horren ildotik, benetan ordaindu dena hartuko da egindako gastutzat.

19. artikulua.– Diruz lagundu ezin diren gastuak.

Ezin izango dira diruz lagundu mota hauetako makineria edo ekipamenduak:

- Administrazio-elementu arruntak, prestakuntza-gelan ez dauden eta soil-soilik prestakuntzarako erabiltzen ez diren elementu informatikoak (ordenagailuak, inprimagailuak, eta abar) eta irakasleek edo ikastetxeko zuzendaritza-taldeak bakarrik erabiltzeko ekipamendua.

- Erabiliko diren heziketa-ziklorako espezifikak ez diren aplikazio informatiko edo teknologikoen software eta erabilera-lizentziak.

- Sareko elementu komunak, adibidez: zerbitzariak, wifia eskuratzeko guneak eta erabiliko diren heziketa-ziklorako espezifikak ez diren beste batzuk.

- Erabilera partekatu eta orokorreko beste edozein elementu, xede duen heziketa-zikloko espezifikoa ez dena, eta espazioak aurreko artikuluen 2. apartatuan ezarritako ezaugarrietara egokitzea ahalbidetzen ez duena.

20. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideekin batera (I. eranskina), beharrezko makineria edo ekipamendua justifikatzen duen memoria aurkeztu beharko da (III. eranskina). Memoria horretan, alderdi hauek jasoko dira:

- Diruz lagunduko den makineriari edo ekipamenduari lotutako heziketa-zikloak, eremu estrategikoak eta helburuak.

- Diruz lagunduko den makineriaren edo ekipamenduaren xehetasunak.

- Eskatutako inbertsioen erabilgarritasunaren justifikazioa.

21. artikulua.– Zenbatekoa eta emateko prozedura.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako dirulaguntzen zenbatekoa 1.000.000 eurokoa da.

2.– Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa zehazteko, 22. artikuluan adierazitako irizpideen arabera banatuko da artikuluko 1. atalean adierazitako zuzkidura, eskatutako epean eta moduan aurkeztu diren eta agindu honetako 4. eta 17. artikuluetan xedatutako eskakizunak betetzen dituzten eskabideen artean.

3.– Arestian aipatutako irizpideak aplikatuta, eremuren batean hasieran banatutako kopurua 22. artikuluan adierazitakoa baino txikiagoa bada, sobera dagoen zenbatekoa proportzionalki

banatuko da berriro lehenengo banaketan lortutako emaitzen arabera, irizpide bakoitzean esleitutako kreditu osoa agortu arte. Aldiz, hasiera batean banatutako diru kopuru osoa esleitutakoa baino handiagoa bada, gehiegizko zenbatekoa murriztu egingo da goian deskribatutako sistema erabilia.

4.– Edonola ere, azkenean ematen den zenbatekoa ezingo da izan diruz lagungarritzat onartutako inbertsioaren % 100 baino handiagoa. Irizpide horiek aplikatuta ateratako kopurua diruz lagungarritzat onartutako kopurua baino handiagoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egingo da horren parera, eta soberako kopurua proportzionalki banatuko da, deskribatutako sistemaren arabera, egoera horretan ez dauden eskabideen artean eta irizpide guztiak aplikatu eta gero lortutako azken emaitzaren arabera.

22. artikulua.– Banaketa-irizpideak.

1.– Eskatzaile bakoitzari diruz lagunduko zaion zenbatekoa kalkulatzeko, 3.2 artikuluan 1. eremurako aurreikusitako aurrekontu-zuzkidurari banaketa-irizpide hauek aplikatuko zaizkio:

a) Ikastetxearen tipologia. Guztizko aurrekontu-zuzkiduraren % 60 honako azpiirizpide hauen arabera banatuko da:

a.1.– 2021-2022 ikasturtean Hezkuntza Sailarekin itundutako Lanbide Heziketako zikloen kopurua, oinarrizkoak, erdi-mailakoak eta goi-mailakoak aintzat hartuta. Heziketa-zikloak multzokatuta agertuko dira, makineria edo ekipamendua zein kostu-talderi dagokion, II. eranskineko taulan ezarritakoari jarraikiz (% 20).

a.2.– 2021-2022 ikasturtean matrikulatutako ikasle kopurua. Heziketa-zikloak multzokatuta agertuko dira, makineria edo ekipamendua zein kostu-talderi dagokion, II. eranskineko taulan ezarritakoari jarraikiz (% 20).

a.3.– 2021-2022 ikasturtean osatutako talde kopurua. Heziketa-zikloak multzokatuta agertuko dira, makineria edo ekipamendua zein kostu-talderi dagokion, II. eranskineko taulan ezarritakoari jarraikiz (% 20).

Azpiirizpide bakoitzeko banaketa ziklo bakoitzari, ikasle bakoitzari eta osatutako talde bakoitzari emandako balioaren arabera egingo da. Horretarako, honako hau egin behar da lehenik: azpiirizpide bakoitzean banatu beharreko zuzkidura zati onartutako eskabideetan dauden zikloen, matrikulatutako ikasleen edo osatutako taldeen guztirako zenbatekoa. Gero, haztatu egin behar da kalkulu horretatik ateratako balioa taula honetan kostu-talde bakoitzerako ezarrita dauden aplikazio-koefizienteekin:

Heziketa-zikloetako makineriaren edo ekipamenduaren kostu-taldea	Koefizientea
A	0,6
B	0,8
C	1
D	1,5
E	2

Zenbateko osoa kalkulatzeko, honako hau egin behar da: lehenik, ziklo, ikasle eta osatutako talde bakoitzaren balioa bider eskabide bakoitzean guztira ematen diren zikloak, matrikulatuta dauden ikasleak eta osatutako taldeak, hurrenez hurren; eta, gero, kalkulu horietatik ateratzen diren emaitzak gehitzea.

b) Erronketan oinarritutako «Ethazi» ikaskuntza-metodologia ezartzea. Aurrekontu-zuzkidura osoaren % 30 ikaskuntza-metodologia hori 2020-2021 ikasturtean erabat edo partzialki edo esperimentalki ezarrita daukaten heziketa-zikloen ehunekoaren arabera banatuko da.

b.1.– Ethazi metodologia erabat ezarrita daukaten zikloen ehunekoa, eskaintako ziklo kopuru osoa aintzat hartuta (% 20).

b.2.– Ethazi metodologia erabat edo partzialki edo esperimentalki ezarrita daukaten zikloen ehunekoa, eskaintako ziklo kopuru osoa aintzat hartuta (% 10).

Azpiirizpide bakoitzean banaketa egiteko, balio bat emango zaio jarraian datorren taulako ehunekoaren tarte bakoitzari. Horretarako, azpiirizpide bakoitzean banatuko den zenbateko osoa zati metodologia hori erabat edo partzialki edo esperimentalki ezarrita daukaten zikloen bat duten onartutako eskabideen kopurua egin behar da. Hortik ateratako balioa honako taula honetan adierazitako aplikazio-koefizienteen bidez haztatu behar da gero:

Ethazi metodologia erabat edo partzialki edo esperimentalki ezarrita daukaten heziketa-zikloen ehunekoa	Koefizientea
% 10 baino handiagoa eta % 25 edo txikiagoa	0,8
% 25 baino handiagoa eta % 35 edo txikiagoa	1
% 35 baino handiagoa eta % 60 edo txikiagoa	1,1
% 60 baino handiagoa	1,2

Eskatzaile bakoitzak azpiirizpide bakoitzean duen ehunekoa kalkulatzeko, Ethazi metodologia erabat edo partzialki edo esperimentalki ezarrita duten heziketa-ziklo guztiak zati eskatzaileak ematen dituen mota horretako heziketa-zikloak egingo da. Eskatzaile bakoitzari dagokion zenbatekoa bat etorriko da kalkulaturako ehunekoaren arabera kasuan-kasuan aplikatu beharreko tartearekin.

c) Ekintzailtza. Guztirako aurrekontu-zuzkiduraren % 10 Ikasenpresa eta Urratsbat programe-tan 2020-2021 ikasturtean izandako parte-hartzearen arabera banatuko da.

c.1.– Ikasgeletan eskola-enpresak sortzea lantzen duen Ikasenpresa heziketa-programan parte hartzea (% 5).

2020-2021 ikasturtean Ikasenpresa programan parte hartu duen eskatzaile bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, azpiirizpide horretan banatuko den guztirako zenbatekoa zati parte-hartzaileen batura egingo da.

c.2.– Enpresa-sorkuntzan laguntzeko Urratsbat programaren esparruan sortutako enpresa kopurua (% 5).

Banaketa hori egiteko, lehenik, 2020-2021 ikasturtean sortutako enpresa bakoitzaren balioa zehaztuko da. Horretarako, hau egingo da: azpiirizpide honetako zuzkiduraren kopurua zati onartutako eskabideetan sortutako enpresa guztien batura.

Kasu bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, hau egingo da: sortutako enpresa bakoitzaren balioa bider eskabide bakoitzean sortutako enpresa kopurua.

23. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradunek justifikazio-kontuari dagozkion agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) IV. eranskina – Justifikazio-memoria ekonomikoa. Dokumentu horretan, errentamendu-kuoten fakturen edo ordainketen zerrenda jasoko da, honako hauek adierazita: hornitzailea/finantza-era-kundea, faktura-zenbakia/errentamendu-kontratuaren zenbakia, fakturaren jaulkipen-data/errentamendu-kontratuaren izenpetze-data eta errentamendu-kuoten/fakturen ordainketa-data.

Dirulaguntzaz gain, finantzaketaz ere baliatu badira jarduerak bai baliabide propioez bai bes-telako dirulaguntzez edo baliabideez, egiaztatu beharko dira zenbatekoa, haren jatorria eta funts horiek diruz lagundutako jardueretarako erabili direla.

b) V. eranskina – Azken memoria, hauek adierazita, besteak beste:

– Egindako inbertsioaren azalpen laburra.

– Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko informazioa.

– Eraitzen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.

2.– Aurreko atalean aipatutako eranskinekin batera, agindu honetako 10.2 artikuluan adierazi-tako gastuen egiaztagiria aurkeztuko dira.

III. KAPITULUA

2. EREMUAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK: 4.0 INGURUNEEN ERRONKEI ERANTZUNGO DIETEN PROIEKTUEI HELTZeko ETA LANBIDE-HEZIKETAKO ERALDAKETA DIGITALAREN ETA JASANGARRITASUNAREN PLANAK EZARTZEKO MAKINERIA EDO EKIPAMENDUA EROSTEKO EDO ERRENTAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK

24. artikulua.– Onuradunak.

Kapitulu honetako dirulaguntzen onuradun izan daitezke 2021-2022 ikasturtean aurrez aurreko modalitate osoan Lanbide Heziketako zikloren bat ematen duten eta 4. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatu integratuen titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak.

25. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira 4.0 inguruneen esparruan teknologia hauetako bat edo batzuk ezartzea ahalbidetuko duen proiektu baten parte den makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko egindakoak, baita makineria edo ekipamendu hori instalatuzetik eratorritako gastuak ere.

- Internet industriala, enpresara aplikatutako Interneta; horri esker, tokiko kudeaketa-datuen sareak sor daitezke sentsore analogikoen datuekin, eta online informazioa sor daiteke makinaren egoerari, prozesuei, produktuen bizitzari eta mantentze-lanari, desbideratzei, aurreikuspeni eta abarri buruz.

- Sistema ziberfisikoak; sentsore fisikoetatik eta sare digitaletatik lortutako informazioa integrazeari egiten diote erreferentzia (2030ean aurreikusten da 30.000 milioi sentsore egongo direla interkonektatuta), eta horrek eremu fisikoko produktu edo objektuen segimendua egitea dakar, informazioa biltegituz eta tratatuz.

- Errealitate areagotua eta errealitate birtuala; simulazioak edo errealitate birtualak aukera ematen du produktu, prozesu eta makinaren 3Dko ereduak sortzeko. Eremu fisikoa birtualki hainbat egoeratan birsortzean datza.

- Fabrikazio aditiboa; 3Dko eredu digitaletik abiatuta, molderik gabe, material-geruzak gehituz, objektu bat sortzen duten 3D inprimagailuei egiten dio erreferentzia. Horri esker, denbora gutxiago behar da eta merkeagoa da ereduak egitea, baita piezak konpontzea ere.

- Fabrikazio aditiboa robotikara aplikatuta.

- Robotika kolaboratiboa; adimen artifiziala robotei aplikatzeko urrats logikoa da, langile baten mugimenduak imitatu ahal izan ditzaten, elkarri modu seguruan eraginez eta sentsoreen informazioa integratuz, hala nola droneena.

- Errealitate mistoa; elkarrekintza fisiko eta birtualak eta ingurunea esperimentatzeko modu berri bat biltzen du, belaunaldi berriko detekzio- eta digitalizazio-teknologiaren sorta baten bidez. Mundu erreala birtualarekin konektatzea du xede, eta munduarekin 360 gradutan elkarrekintzan aritzeko aukera gehiago ematen ditu.

2.– Proiektuak makineria edo ekipamendu bakarra hartu behar du barnean, eta, kasu horretan, xede duen teknologia ezartzeko oinarrizkoa edo enborrekoa izan behar du. Halaber, posible da ondo funtzionatzeko behar-beharrezkoak diren osagarriak edo moduluak gehitzea. Hainbat ekipo ere egon daitezke, batera muntatuta instalazio bat osatzen badute; adibidez, murgilketa-gela bat, gela interaktibo bat, produkzio-kate bat...

3.– Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra egin ahal izango du, proiektu bakarrean.

4.– Makineria edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko.

5.– Makineria edo ekipamendua erosteak edo errentan hartzeak duen jasandako balio erantsiaren gaineko zerga diruz lagungarritzat joko da baldin eta indarreko zerga-araubidearen arabera berreskurazina bada.

6.– Makineriaren edo ekipamenduaren erosketak eta ordainketak, bai eta kapitulu honetan xedatutako dirulaguntzen xede diren errentamendu-kuoten ordainketak ere, 2022ko urtarrilaren 1aren eta 2022ko abenduaren 30aren artean egin behar dira. Horren ildotik, benetan ordaindu dena hartuko da egindako gastutzat.

26. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerekin batera (I. eranskina), honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Proiektuaren aurkezpen-dokumentua. Gutxienez, honako atal hauek izan behar ditu:

- Proiektuaren eta bere helburuen deskribapen eta justifikazio zehatza, eta eskatutako makineria edo ekipamendu bakoitzaren egokitasunaren justifikazioa.

- Proiektuaren ardatz nagusia izango den 4.0 inguruneetako teknologia.

- Proiektuaren ezarpenak ikastetxean izango duen irismena.

- Hasita edo hasteko dagoen beste proiekturen bati lotutako makineria- edo ekipamendu-eskaerak.

- Eskatutako makineriarekin edo ekipamenduarekin ezarriko den 4.0 teknologia erabiltzeko irakasleek egin duten edo egingo duten prestakuntza-plana.

b) Proiektuaren laburpen-memoria (VI. eranskina).

27. artikulua.– Zenbatekoa eta emateko prozedura.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako dirulaguntzen zenbatekoa 1.217.487 eurokoa da.

2.– Kapitulu honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko, lehia bidezko konkurrentzia-prozedura erabiliko da. Ondorio horietarako, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, haien artean lehentasun-hurrenkera ezartzeko, agindu honen 28. artikuluan finkatutako balorazio-irizpideei jarraituz. Deialdi honen 2. eremuari esleitutako kredituak agortu arte adjudikatuko dira dirulaguntzak, hurrengo apartatuan ezarritako mugekin.

3.– Onuradun bakoitzari diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 100 emango zaio; gehienez 150.000 euro eta gutxienez 18.000 euro.

4.– Hala ere, prozedura eta artikulua honetan ezarritako mugak aplikatu ondoren, banatu gabeko zuzkidurarik geratzen bada, lehentasun-hurrenkera hurrengo postuan sailkatuta dagoenaren inbertsio diruz lagungarriaren % 100era iristen ez delako, geratzen den zuzkiduraren zenbatekoa esleituko zaio, betiere diruz lagungarri gisa onartutako inbertsioaren % 85 gutxienez estaltzen badu. Bestela, puntuazio handiena duen hurrengo sailkatuari esleituko zaio laguntza, baldin eta gainerako zuzkiduraren zenbatekoak diruz lagundu daitekeen inbertsioaren % 85 estaltzen badu, gutxienez.

28. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.– Proiektua bat ez badator deialdiaren xedearekin, horixe adieraziko da, eta ez da haren baloraziorik egingo.

2.– Proiektuak irizpide hauei jarraikiz baloratuko dira, dagozkien puntuazioak emanda:

a) Proiektuaren eta bere helburuen deskribapen eta justifikazio zehatza, eta eskatutako makineria edo ekipamendu bakoitzaren egokitasunaren justifikazioa (0 – 15 puntu).

Proiektuaren eta horrekin lortu nahi diren helburuen deskribapenaren eta justifikazioaren kalitatea eta garapen-maila baloratuko dira, bai eta proiektua gauzatzeko eskatutako makineria edo ekipamendu bakoitzak duen egokitzearen edo funtzioaren justifikazioa ere.

b) Proiektuak duen gaitasuna agindu honen 25.1 artikuluan deskribatutako teknologiak ezartzeko, bai eta 4.0 inguruneen erronkei erantzuteko eta lanbide-heziketaren eraldaketa digitalerako eta jasangarritasunerako planak ezartzeko duen gaitasuna ere.

Irizpide hori baloratzeko, lehenik eta behin, aurkeztutako proiektu guztiak sailkatuko dira, proiektu bakoitzaren ardatz nagusia den teknologia motaren arabera, eta teknologia hori bakarrik baloratuko da. Teknologia baten barruan sailkatutako proiektu bakoitzak gehienez lor daitekeen puntuazioa izango du:

- Errealitate mistoa, errealitate areagotua eta errealitate birtuala: gehienez 8 puntu.
- Robotika kolaboratiboa: gehienez 7 puntu.
- Fabrikazio aditiboa eta robotikara aplikatutako fabrikazio aditiboa: gehienez 6 puntu.
- Internet industrialia eta sistema ziberfisikoak: gehienez 5 puntu.

Proiektu bakoitzaren puntuazio individualizatua teknologia beraren barruan sailkatutako proiektu guztiak alderatu ondoren ezarriko da, proiektu bakoitzak hauek egiteko duen gaitasunaren arabera: teknologiaren ezarpen-maila handiagoa edo txikiagoa lortzea, 4.0 inguruneen erronkei erantzutea eta lanbide-heziketaren eraldaketa digitalerako eta jasangarritasunerako planak ezartzea.

c) Proiektua ezartzeak ikastetxean izango duen irismena (0-10 puntu).

Proiektuak ikastetxeko ikasle eta irakasleengan izango duen eragina baloratuko da, baita ikastetxeko sailetan eta Lanbide Heziketako zikloetan izango duena ere.

Irismena kuantifikatu beharko da proiektuaren onuradun izango diren ikasle, irakasle, sail eta zikloen kopuruaren arabera, ikastetxe osoari dagokionez. Ildo horretan, behar bezala garatu eta argudiatu beharko da irismenean agertzen direnek nola jasoko duten proiektuaren onura, eta horietako bakoitzak ezarri nahi den teknologia nola erabiliko duen azaldu beharko da.

d) Hasita edo hasteko dagoen beste proiekturen bati lotutako makineria- edo ekipamendu-eskaerak (0-5 puntu).

Eskatutako makineria edo ekipamendua eskatzaileak hasita edo hasteko daukan beste proiekturen bati lotuta dagoen baloratuko da. Betiere, proiektua egikaritzeko ezarritako edo aurreikusitako epea adierazi beharko da.

Eskatzailea Lanbide Heziketara Aplikatutako Ikerketa Zentroarekin (TKNIKA) edo lanbide-heziketako beste zentro batzuekin lankidetzan lan egiten ari den edo lan egingo duen proiektu zehatzak soilik hartuko dira kontuan. Ildo horretan, proiektu horietan parte hartu izanaren ebidentziak aurkeztu beharko dira, eta deialdi honetan eskatutako makineriaren edo ekipamenduaren eta apartatu honetan alegatutako proiektuen arteko lotura argudiatu beharko da.

e) Eskatutako makineriarekin edo ekipamenduari ezarriko den 4.0 teknologia erabiltzeko irakasleek egin duten edo egingo duten prestakuntza-plana (0-5 puntu).

Prestakuntza jaso duten irakasleen kopurua eta prestakuntza eman nahi zaien irakasleen kopurua baloratuko dira, proiektuaren irismenean ageri diren irakasleen guztizko kopuruari dagokionez, bai eta prestakuntza hori ezarri beharreko 4.0 teknologia erabiltzeko egokia den ere. Horretarako, irakasle horiek jaso duten edo jasoko duten prestakuntzaren xehetasun guztiak eman beharko dira.

3.– Aurkeztutako proiektuek aurreko apartatuko irizpideak aplikatuz lortu duten puntuazioari haztapan-faktore bat aplikatuko zaio, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko azaroaren 9ko Agindua-ren –zeinaren bidez makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzen deialdia egiten baita, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan– 27.2 artikuluan ezarritako gehieneko zenbateko diruz lagungarriaren (150.000 euro) estaldura-mailaren arabera –aipatutako aginduan iragarritako dirulaguntzak ematen dituen Lanbide Heziketako sailburuordearen 2021eko abenduaren 27ko Ebazpenean lortutakoa–.

Diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoaren (150.000 euro) estaldura-maila 2021eko deialdiaren ebazpenean	Haztapan-faktorea
% 0	1,25
% 0 baino handiagoa eta % 25 edo txikiagoa	1,20
% 25 baino handiagoa eta % 50 edo txikiagoa	1,15
% 50 baino handiagoa eta % 75 edo txikiagoa	1,10
% 75 baino handiagoa eta % 100 baino txikiagoa	1,05
%100	1

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak kapitulu honetako jarduketa-eremurako makineria edo ekipamendua erostea edo errentan hartzea finantzatzeko 2021ean eman zituen beste dirulaguntza batzuen – izan dirulaguntza izendunak, dirulaguntza zuzenak edo dirulaguntza-aginduetan ezarritakoari jarraikiz emandako bestelako edozein laguntza– onuradun izan ziren eskatzaileek aurkeztu dituzten proiektuek lortutako puntuazioari 1eko haztapan-faktorea aplikatuko zaio.

29. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradunek justifikazio-kontuari dagozkion agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) VII. eranskina – Justifikazio-memoria ekonomikoa. Dokumentu horretan, errentamendu-kuoten fakturen edo ordainketen zerrenda jasoko da, honako hauek adierazita: hornitzailea/finantza-era-kundea, faktura-zenbakia/errentamendu-kontratuaren zenbakia, fakturaren jaulkipen-data/errentamendu-kontratuaren izenpetze-data eta errentamendu-kuoten/fakturen ordainketa-data.

Dirulaguntzaz gain, finantzaketaz ere baliatu badira jarduerak bai baliabide propioez bai bes-telako dirulaguntzez edo baliabideez, egiaztatu beharko dira zenbatekoa, haren jatorria eta funts horiek diruz lagundutako jardueretarako erabili direla.

b) VIII. eranskina – Azken memoria, hauek adierazita, besteak beste:

– Egindako inbertsioaren azalpen laburra.

– Eraitzen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.

2.– Eranskin horiekin batera, agindu honetako 10.2 artikuluan adierazitako gastuen egiaztagi-riak aurkeztuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan araututako laguntzek ebko funtzionamendurako tratatuaren 107. 1 artikuluan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ez dituztenez, ez dira estatuaren laguntzat hartzen; beraz, ez zaio Europako batzordeari jakinarazpenik egin behar.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraz-tertzeke errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administra-zioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egu-netik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 7a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

ESKABIDE ELEKTRONIKOAREN EREDUA

Datu pertsonalak**Titularra**

Identifikazio-dokumentua: Zenbakia:

Erakundearen izena:

Ordezkarria

Izen-abizenak:

Identifikazio-dokumentua: Zenbakia:

Erakundearen barruan duen kargua:.....

Helbide elektronikoa:

Telefono-zenbakia:

Entitate eskatzailearen datu fiskalak dituen lurraldea / probintzia

Lurraldea / Probintzia

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

- Bide elektronikotik: Nire karpeta ataleko jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, identifikazio-modu elektronikoa bat behar da.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa edo SMS bidezko aurretiako abisuen sistema erabili nahi duzu?

Abisu-kanala

Telefono-zenbakia / Posta elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

Euskara

Gaztelania

Jarduketa-eremu bakoitzean eskatutako zenbatekoa

Jarduketa-eremua	Zerga-oinarriaren zenbatekoa (1)	BEZ berreskurazinen zenbatekoa* (2)	Eskatutako zenbatekoa, guztira (1+2)
1. eremua			
2. eremua			

* Balio erantsiaren gaineko zerga diruz lagungarritzat joko da indarreko zerga-araubidearen arabera berreskurazina bada, eskuragarri dagoen azken ekitaldi fiskala aintzat hartuta.

Erantzukizunpeko adierazpenak

Honako hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

***Bateragarritasun-adierazpenak**

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
- Xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzak jasotzen ari da administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik (dagokion agirian zehaztu behar dira puntu honetako datuak).
- Administrazio publikoren bati edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntzaren bat eskatu dio, eta ebazpena jasotzeko zain dago (dagokion agirian zehaztu behar dira puntu honetako datuak).

Erakundea	Eskatutako dirulaguntza	Emandako dirulaguntza	Ebazteke dagoen dirulaguntza

- Ez du zehapenik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.
- Ez dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2002 Legearen azken xedapenetako laugarrenean ezarritako egoeraren batean.
- Ordainduta dauzka dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeraren batean.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.

Era berean, adierazten dut badudala baldintza horiek betetzen ditudala egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko dudala eskatzen zaidanean, eta hitz ematen dudala aurreko betebeharrak betetzen jarraituko dudala aitortzen edo jardun horri dagokion denboran.

Erantzukizunpeko adierazpenek eta komunikazioek aukera emango dute aurkezten diren egunetik aurrera eskubide bat aitortzeko edo baliatzeko edo jarduera bat hasteko, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoek esleituak dituzten egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.3 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

2022ko ekainaren 17a, ostirala

Aurkeztutako agiriak

Dokumentu mota	Izena

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzea

Araudi aplikagarriarekin bat etorritik, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu, ofizioz, administrazio eskuduneari:

Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko (GSDN) betebeharrak egunean izatearen datuak.

Balio erantsiaren gaineko zerga berreskuratzeari buruzko informazioa, eskuragarri dagoen azken ekitaldian (EAEko foru-aldundiak).

AURKA EGITEN DIOT prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztapenak egiteari (39/2015 Legearen 28. art.).

Oharra: aurka eginez gero, prozeduran eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

(lekua)_____
(data)

(Titularraren sinadura elektronikoa)

2022ko ekainaren 17a, ostirala

II. ERANSKINA

LANBIDE-HEZIKETAKO OINARRIZKO, ERDI-MAILAKO ETA GOI-MAILAKO ZIKLOETAKO MAKINERIAREN EDO EKIPAMENDUAREN KOSTU-TALDEAK, ZIKLOEN SEKTOREAREKIN ETA LAN-ARLOAREKIN BATERA

Sektorea	Arloa	Zikloaren kodea	Heziketa-zikloa	Makineriaren eta/edo ekipamenduaren kostu-taldea
Industria	Nekazaritza	915212	Baso-aprobetxamenduak	C
	Arte grafikoak	915310	Arte grafikoak	B
		815301	Argitalpen Inprimatuen eta Multimedia Argitalpenen Diseinua eta Edizioa	C
		815302	Produktzio Grafikoaren Diseinua eta Kudeaketa	D
		715302	Inprimaketa Grafikoa	E
		715301	Aurreinprimaketa Digitala	B
	Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	917210	Ehunezko eta Larruzko Artikuluen Konponketa	B
		717201	Jantzigintza eta Moda	B
		817201	Patroigintza eta Moda	B
	Elektrizitatea eta Elektronika	915610	Elektrizitatea eta Elektronika	B
		915611	Instalazio Elektroteknikoak eta Mekanikoak	B
		815604	Automatizazioa eta Robotika Industriala	B
		715601	Instalazio Elektriko eta Automatikoak	B
		815603	Mantentze Elektronikoa	B
		815601	Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak	B
		815602	Telekomunikazio eta Informatika Sistemak	B
		815605	Elektromedikuntza Klinikoa	C
	715602	Telekomunikazio Instalazioak	C	
	Elikagaien Industriak	816202	Elikagaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea	B
		716201	Okintza, Gozogintza eta Konfiteria	B
	Fabrikazio Mekanikoa	815803	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	B
		815801	Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	D
		915810	Metalezko Elementuen Fabrikazioa - Mekanizazioa	C
		715801	Mekanizazioa	D
		815802	Metalezko Eraikuntzak	D
		915811	Metalezko Elementuen Fabrikazioa - Soldadura eta Galdaragintza	C
		715802	Soldadura eta Galdaragintza	D
	Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak	917310	Ibilgailuen Elektromekanika	D
		917312	Kirol Ontziak eta Laketontziak Mantentzeko Lanak	C
		817301	Automobilgintza	D
		717302	Ibilgailu Automobilen Elektromekanika	E
		917311	Ibilgailuen Mantentzea - Karrozeria	D
		717301	Karrozeria	C
	Instalazio eta Mantentze Lanak	717303	Makinen Elektromekanika	C
		916510	Iturgintza-Berokuntza	C
		916511	Hoztea	C
		716501	Beroa Sortzeko Instalazioak	C
	716502	Hozteko eta Girotzeko Instalazioak	C	

2022ko ekainaren 17a, ostirala

Sektorea	Arloa	Zikloaren kodea	Heziketa-zikloa	Makineriaren eta/edo ekipamenduaren kostu-taldea
		716503	Mantentze Elektromekanikoa.	C
		816504	Mekatronika Industriala	D
		816502	Instalazio Termikoak eta Fluidodunak Mantentzea	C
		816501	Instalazio Termiko eta Fluidoaren Proiektuen Garapena	D
	Kimika	816801	Analisiak Egiteko eta Kalitatea Kontrolatzeko Laborategia	C
		816802	Kimika Industriala	C
		716802	Laborategiko Eraketak	B
		716801	Planta kimikoa	E
	Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak	816803	Farmaziako Produktuen, Produktu Bioteknologikoen eta Antzekoen Fabrikazioa	C
		916610	Arotz Lanak eta Altzariak - Neurria Eginiko Arotzeria	B
		716602	Instalazioak eta Altzari Hornikuntza	C
		716601	Arotzeria eta Altzarigintza	C
	Energia eta Ura	816601	Diseinua eta Altzari Hornikuntza	C
		815701	Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa	C
	Itsasoa eta Arrantza	815703	Energia Berriztagarriak	C
		716703	Ontzi eta Itsasontzien Makineriaren Zainketa eta Kontrola	C
	Ostalaritza eta Turismoa	816703	Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzea	C
		915911	Okintza-Gozogintza Jarduerak	B
	Segurtasuna eta Ingurumena	817003	Kimika eta Ingurumen Osasuna	B
	Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak	717602	Ingurumen eta Aisialdi Gida	A
		817601	Gizarte eta Kirol Animazioa eta Irakaskuntza	B
		817602	Egokitze Fisikoa	B
	Administrazioa eta Kudeaketa	715101	Administrazio Kudeaketa	A
		815101	Administrazioa eta Finantzak	A
		815102	Zuzendaritzarako Laguntza	A
		915110	Administrazio Zerbitzuak	A
	Nekazaritza	715201	Nekazaritza Ekologikoko Produkzioa	C
		715202	Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Produkzioa	C
		715203	Lorategizaintza eta Lorezaintza	C
		715204	Natura Ingurunea Ustiatzea eta Kontserbatzea	C
		815201	Basoaren eta Natura Ingurunearen Kudeaketa	C
		815202	Paisajismoa eta Landa Ingurunea	C
		915210	Nekazaritzako Lorezaintza eta Lore Konposizioak	C
	Merkataritza eta Marketina	715401	Merkataritza Jarduerak	A
		715402	Elikagaien Merkaturatzea	B
		815401	Nazioarteko Merkataritza	A
		815402	Garraioa eta Logistika	A
		815403	Marketina eta Publizitatea	A
		815404	Salmentak eta Merkataritza Espazioak Kudeatzea	A
		915410	Merkataritza Zerbitzuak	A
Eraikuntza eta Obra Zibila	715501	Barruko Obrak, Dekorazioa eta Berritzeak	C	
	915510	Eraikuntza	C	
	815501	Eraikuntza Proiektuak	B	

2022ko ekainaren 17a, ostirala

Sektorea	Arloa	Zikloaren kodea	Heziketa-zikloa	Makineriaren eta/edo ekipamenduaren kostu-taldea
		815502	Obra Zibileko Proiektuak	B
		815503	Eraikuntza Obren Kontrola eta Antolaketa	A
		915511	Barnealdean Dekorazioa	C
	Ostalaritza eta Turismoa	715901	Sukaldaritza eta Gastronomia	C
		715902	Jatetxe Arloko Zerbitzuak	B
		815901	Turismo Ostatuak Kudeatzea	B
		815902	Bidaia Agentziak eta Ekitaldien Kudeaketa	A
		815903	Turismo Gidaritza, Informazioa eta Laguntza	A
		815904	Jatetxe Arloko Zerbitzuen Zuzendaritza	B
		815905	Sukalde Zuzendaritza	B
		915910	Sukaldaritza eta Jatetxe Arloa	B
	Irudi pertsonala	716001	Estetika eta Edergintza	B
		716002	Ile Apainketa eta Ile Kosmetika	B
		816001	Estetika Integrala eta Ongizatea	C
		816002	Ile Apainketako Estilismoa eta Zuzendaritza	B
		816003	Irudi Pertsonalaren eta Korporatiboaren Aholkularitza	B
		816004	Karakterizazio eta Makillaje Profesionala	B
		916010	Ile Apainketa	A
	Irudia eta Soinua	916011	Estetika	A
		716101	Bideo Disc-jockey eta Soinua	C
		816101	3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreragileak	B
		816102	Ikus-entzunezko eta Ikuskizunen Produkzioa	B
		816103	Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioa	B
		816104	Ikus-entzunezkoetarako eta Ikuskizunetarako Soinua	B
	816105	Irudia Argizatzea, Hartzea eta Tratatzea	C	
	Elikagaien Industriak	916210	Harategia-Urdaitegia	B
	Informatika eta Komunikazioak	916410	Informatika eta Komunikazioak	A
		916411	Bulegoko Informatika	A
		816401	Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	A
		816402	Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena	A
		816403	Web Aplikazioen Garapena	A
		716401	Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak	A
	Instalatzeko eta Mantentze Lanak	813004	Arrisku Profesionalaren Prebentzioa	C
	Itsasoa eta Arrantza	716702	Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza	C
		716704	Urpeko Eragiketak eta Eragiketa Hiperbarikoak	D
		816701	Itsas Garraioa eta Alturako Arrantza	C
		816702	Akuikultura	C
	Osasungintza	711501	Erizaintzako Zaintza Osagarriak	A
		716901	Osasun Larrialdiak	C
		716902	Farmazia eta Parafarmazia	A
		811503	Dietetika	B
		816903	Anatomia Patologikoa eta Zitodiagnosia	A
816906		Aho eta Hotz Higienea	B	

2022ko ekainaren 17a, ostirala

Sektorea	Arloa	Zikloaren kodea	Heziketa-zikloa	Makineriaren eta/edo ekipamenduaren kostu-taldea
		816908	Laborategi Kliniko eta Biomedikoa	A
		816907	Diagnosi Irudia eta Medikuntza Nuklearra	B
		816905	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa	A
		816904	Hortz Protesiak	C
		816909	Erradioterapia eta Dosimetria	C
		816902	Ortoprotesiak eta Laguntza Produktuak	C
	Segurtasuna eta Ingurumena	817001	Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola	B
	Gizarte eta Kultura Zerbitzuak	717101	Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta Ematea	A
		817101	Haur Hezkuntza	A
		817102	Gizarteratzea	A
		817103	Animazio Soziokulturala eta Turistikoa	A
		817104	Genero berdintasunaren Sustapena	A
		917110	Etxeko Lanak eta Eraikinak Garbitzea	A
	Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	817204	Neurriko Jantziak eta Ikuskizunetakoak	B

III. ERANSKINA

BEHARREZKO MAKINERIAREN EDO EKIPAMENDUAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA –1. ARLOA

A) DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO EKIPAMENDUEI LOTUTAKO HEZIKETA-ZIKLOAK, EREMU ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK

IDENTIFIKAZIOA
Ikastetxearen izena:
Ikastetxearen kodea:

DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO MAKINERIARI ETA/EDO EKIPAMENDUEI LOTUTAKO HEZIKETA-ZIKLOEN ZERRENDA	
Lanbide-arloa	Heziketa-zikloak

DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO MAKINERIARI ETA/EDO EKIPAMENDUARI LOTUTAKO EREMU ESTRATEGIKOAK - LANBIDE HEZIKETAKO V. EUSKAL PLANA	
<input type="checkbox"/> Ikaskuntza	<input type="checkbox"/> Nazioartekotzea
<input type="checkbox"/> Etengabeko hobekuntza	

Zenbakia	DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO MAKINERIARI ETA/EDO EKIPAMENDUARI LOTUTAKO HELBURUAK
1	
2	
3	
4	
5	

DEIALDIKO HELBURU OROKORREN LORPEN-MAILA – Adierazleak	HB
1.- Diruz lagundutako makineria eta/edo ekipamenduak baliatzen dituzten heziketa-zikloen kopurua	
2.- Diruz lagundutako makineria eta/edo ekipamenduak baliatzen dituzten heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleen kopurua	

HB: HELBURU-BALIOAK

2022ko ekainaren 17a, ostirala

B) DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO MAKINERIAREN ETA/EDO EKIPAMENDUAREN XEHETASUNAK

Unitate kopurua	Diruz lagundu beharreko makineriaren eta/edo ekipamenduaren deskribapena	Ekipamendua erabiliko du(t)en heziketa-zikloa(k)	Zein helbururi lotzen zaion (1)	Zerga-oinarria (ZO)	BEZ (% 21)	BEZ berreskurazina	ESKATUTAKO ZENBATEKOA (ZO + BEZ berreskurazina)
ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA, GUZTIRA							

- (1) Adierazi eskatutako ekipamendu bakoitza zein helburu-zenbakiri lotzen zaion, diruz lagundu beharreko ekipamenduaren justifikazio-memoria honetako "diruz lagundu beharreko ekipamenduei lotutako helburuak" atalean zerrendatutakoen artean. Ekipamendua helburu bati baino gehiagori lotzen bazaio, adierazi helburu horien guztien zenbakiak.

C) ESKATUTAKO INBERTSIOEN ERABILGARRITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

ESKATUTAKO MAKINERIA ETA/EDO EKIPAMENDU BAKOITZAREKIN EGINGO DIREN IRAKASKUNTZA-JARDUEREN EDO IKASLEEK MAKINERIA ETA/EDO EKIPAMENDU BAKOITZARI EMANGO DIOTEN ERABILERARI BURUZKO AZALPEN-MEMORIA LABURRA

Zenbat denbora emango duten ondasunek helburu zehatz horretan (zenbat urte)

2022ko ekainaren 17a, ostirala

V. ERANSKINA

AZKEN MEMORIA – 1. EREMUA

Identifikazioa			
Ikastetxearen izena:			
Ikastetxearen kodea:			
Eskatutako dirulaguntza		Emandako dirulaguntza	

Eskuratutako makineriari eta/edo ekipamenduari lotutako heziketa-zikloen zerrenda	
Lanbide-arloa	Heziketa-zikloak

Eskuratutako makineriari eta/edo ekipamenduei lotutako eremu estrategikoak - Lanbide Heziketako V. Euskal Plana	
<input type="checkbox"/> Ikaskuntza	<input type="checkbox"/> Nazioartekotzea
<input type="checkbox"/> Etengabeko hobekuntza	

Egindako inbertsioaren eta makineriarekin eta/edo ekipamenduekin egindako irakaskuntza-jardueren edo ikasleek egindako erabileren azalpen-memoria laburra.

Deialdiko helburu orokorren lorpen-maila – Adierazleak	HB	LB	D (%)
1.- Diruz lagundutako makineria eta/edo ekipamenduak baliatzen dituzten heziketa-zikloen kopurua.			
2.- Diruz lagundutako makineria eta/edo ekipamenduak baliatzen dituzten heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleen kopurua.			

hb: helburu-balioak

lb: lortutako balioak

d: desbideratzea

Emaizten ebaluazioa diruz lagundutako makineriari eta/edo ekipamenduari lotutako helburuen (III. eranskina) eta hobetzeko proposamenen arabera. Eman nahi den bestelako informazio interesgarria

VI. ERANSKINA

PROIEKTUAREN LABURPEN-MEMORIA – 2. EREMUA

IDENTIFIKAZIOA
Ikastetxearen izena:
Ikastetxearen kodea:

a) PROIEKTUAREN ETA BERE HELBURUEN DESKRIBAPEN ETA JUSTIFIKAZIO ZEHATZA, ETA ESKATUTAKO MAKINERIAREN ETA/EDO EKIPAMENDUAREN EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

PROIEKTUAREN ETA BERE HELBURUEN DESKRIBAPEN ETA JUSTIFIKAZIO LABURRA, ETA ESKATUTAKO MAKINERIA ETA/EDO EKIPAMENDU BAKOITZAREN EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

--

ESKURATUKO DEN MAKINERIA ETA/EDO EKIPAMENDU BAKOITZAREN INBERTSIOAREN XEHETASUNAK.

UNITATE KOPURUA	DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO MAKINERIAREN EDO EKIPAMENDUAREN DESKRIBAPENA	Zerga-oinarria (ZO)	BEZ (% 21)	BEZ berreskurazina	ESKATUTAKO ZENBATEKOA (ZO + BEZ berreskurazina)
PROIEKTURAKO ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA, GUZTIRA					

2022ko ekainaren 17a, ostirala

b) PROIEKTUAREN ARDATZ NAGUSIA IZANGO DEN 4.0 INGURUNEETAKO TEKNOLOGIA

Errealitate mistoa, errealitate areagotua eta errealitate birtuala.

Robotika kolaboratiboa

Fabrikazio aditiboa eta robotikara aplikatutako fabrikazio aditiboa.

Internet industrialia eta sistema ziberfisikoak

*Teknologia bakar bat baloratuko da.

c) PROIEKTUAREN EZARPENAK IKASTETXEAN IZANGO DUEN IRISMENA

PROIEKTUAREN EZARPENAK IKASTETXEAN IZANGO DUEN IRISMENA	Kopurua	Ikastetxe osoari dagokion %-a
Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeko sailen kopurua, guztira.		
Proiektua ezartzearen onurak jasoko dituzten heziketa-zikloen kopurua, guztira.		
Proiektua ezartzearen onurak jasoko dituzten ikasleen kopurua, guztira.		
Proiektua ezartzearen onurak jasoko dituzten irakasleen kopurua, guztira.		

d) HASITA EDO HASTEKO DAGOEN BESTE PROIEKTUREN BATI LOTUTAKO MAKINERIA- ETA/EDO EKIPAMENDU-ESKAERAK

ESKATUTAKO MAKINERIARI ETA/EDO EKIPAMENDUARI LOTUTAKO PROIEKTUA, HASITA DAGOENA	Hauekin lankidetzan: (TKNIKA edo LHko beste zentro batzuk)	Proiektua egiteko aldia	
		Hasiera-data	Amaiera-data

ESKATUTAKO MAKINERIARI ETA/EDO EKIPAMENDUARI LOTUTAKO PROIEKTUA, HASTEKO DAGOENA	Hauekin lankidetzan: (TKNIKA edo LHko beste zentro batzuk)	Proiektua egiteko aurreikusitako aldia	
		Hasiera-data	Amaiera-data

2022ko ekainaren 17a, ostirala

e) ESKATUTAKO MAKINERIAREKIN ETA/EDO EKIPAMENDUAREKIN EZARRIKO DEN 4.0 TEKNOLOGIA ERABILTZEKO IRAKASLEEK IZANGO DUTEN PRESTAKUNTZA-PLANA

ESKATUTAKO MAKINERIAREKIN ETA/EDO EKIPAMENDUAREKIN EZARRIKO DEN 4.0 TEKNOLOGIA ERABILTZEKO, PROIEKTUAREN IRISMENEAN AGERI DIREN IRAKASLEEK IZANGO DUTEN PRESTAKUNTZA-PLANA	Kopurua	Proiektuaren irismenean ageri diren irakasleen guztizko kopuruari dagokion %-a
Eskatutako makineriarekin eta/edo ekipamenduarekin ezarriko den 4.0 teknologia erabiltzeko prestakuntza jaso duten irakasleen kopurua.		
Eskatutako makineriarekin eta/edo ekipamenduarekin ezarriko den 4.0 teknologia erabiltzeko prestakuntza jaso behar duten irakasleen kopurua.		
Zenbat denbora emango duten ondasunek helburu zehatz horretan (zenbat urte)		

2022ko ekainaren 17a, ostirala

VII. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-MEMORIA EKONOMIKOA – 2. EREMUA

IKASTETXEAREN IZENA:

Hornitzailea / Finantza-erakundea	Fakturaren data / Errentamendu-kontratua-izenpeze-data	Fakturaren / Errentamendu-kuotaren ordainketa-data	Faktura zk. / Errentamendu-kontratua-izenpeze-data	Unitate kopurua	Eskatutako eta eskuratutako makineriaren eta/edo ekipamenduaren deskripzioa	Zerga-oinarria (ZO)	2. eremuan jasotako dirulaguntzari egotzita-ko ZOren %-a	2. eremuan jasotako dirulaguntzari egotzita-ko ZOren %-a (1)	BEZ berreskurae zina(2)	Justifikatutako zenbatekoa, guztira (1+2)
GUZTIRA:										

(2) Balio erantsiaren gaineko zerga diruz lagungarritzat joko da indarreko zerga-araubidearen arabera berreskuraezina bada.

Justifikatutako zenbatekoaren azken laburpena	
Eskatutako dirulaguntza (eurotan)	Deialdi honetan adjudikatutako kopurua (eurotan)
	Justifikatutako gastuak (eurotan)

Beste finantzaketa-turri batzuen azken laburpena		
Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzaz finantzatutako kopurua	Eskatutako zenbatekoa	Baliabide propioen bidez finantzatutako kopurua
	Erakunde publikoa eta pribatua	

Agiri bidezko justifikazioa
<ul style="list-style-type: none"> • 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 30era bitarteko aldiari dagozkion fakturen benetako kopia, eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak. • Errentamendu-kuotarako –2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 30era bitarteko aldiari dagozkionak–, kontratuaren kopia eta kuota horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

Erantzukizunpeko adierazpena
<input type="checkbox"/> Adierazten dut memoria honetan eta gehitutako agiriaren jasotako datu guztiak egiazkoak direla.

2022ko ekainaren 17a, ostirala

VIII. ERANSKINA

AZKEN MEMORIA – 2. EREMUA

Identifikazioa			
Ikastetxearen izena:			
Ikastetxearen kodea:			
Eskatutako dirulaguntza		Emandako dirulaguntza	

Egindako inbertsioaren azalpen-memoria laburra.

Emaitzen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak. Eman nahi den bestelako informazio interesgarria.